

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2254

293/2018 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultativo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Angiologia eta Hodietako Kirurgiako Mediku kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 171/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultativo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Angiologia eta Hodietako Kirurgiako Mediku kategoriako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. Eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I. ERANSKINA

FAK. ESP. ANGIOLOGIA ETA HODIETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Enrique Gutiérrez Fraile.
- Ordezkoa: Iñigo Valdivielso Moneo.

Lehen Epaimahaikidea:

- Titularra: María Reyes Vega Manrique.
- Ordezkoa: Silvia Ayala González.

Bigarren Epaimahaikidea:

- Titularra: José María De Egaña Barrenechea.
- Ordezkoa: Natalia De La Fuente Sánchez.

Hirugarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Juan Luis Fonseca Legrand.
- Ordezkoa: Roberto Gómez Vivanco.

Laugarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Ana Isabel Cabezas Magaz.
- Ordezkoa: Aitziber Salazar Agorria.

Bosgarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Melina Vega De Ceniga.
- Ordezkoa: Yolanda Gallardo Hoyos.

Seigarren Epaimahaikidea:

- Titularra: José Luis Higuera Bombín.
- Ordezkoa: Francisco Ortiz Gutiérrez.

Idazkaria:

- Titularra: María Milagros López de Aberasturi Ortiz.
- Ordezkoa: Francisco Javier Fuertes Machín.